

---

# 2019ko FORU HAUSTEKUNDE ETA UDAL HAUTESKUNDEETARAKO SAREEN SAREAREN 19 PROPOSAMEN

---

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak 19 proposamen egiten dizkie Euskadiko alderdi politikoei berdintasunean oinarritutako eta bateratzaileagoa den gizarte-eredurantz aurrera egiteko; betiere, babes soziala, irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua bermatzeko arlo guztietan, ekonomia solidarioa herritarren zerbitzura jarrita, aniztasunarekiko errespetua, elkarbizitza eta integrazioa sustatuta, nazioarteko lankidetzeta eta gizarte-ekimena indartuta.



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparragirre, 9  
48009 Bilbao  
Tel. 946 569 230  
[info@sareensarea.eu](mailto:info@sareensarea.eu)  
[www.sareensarea.eu](http://www.sareensarea.eu)



## Aurkezpena

Datozen foru- eta udal-hauteskundeetan parte hartuko duten hautagai politikoak tokiko erakundeetako gobernua lortzeko (herritarrengandik gertuen daudenak dira) hautesleei helaraziko dizkiguten hauteskundeko proposamenei azken ukituak ematen ari dira. Oraingo honetan, hitzorduak bat egiten du Europako Parlamentuan ere ordezkatzeko gaituzten pertsonen izendapenarekin.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak definitzen dituen ezaugarrietako bat zera da: lurraldearekiko duten lotura, sortu diren eta helburu duten komunitatearekiko, alegia. Horrek eskatzen du lotura bat, konpromiso bat garatzea erakunde bakoitzak lan egiten duen komunitate bakoitzean dauden pertsonekin, familiekin, erakundeekin eta enpresekin. Herritarren ongizatearekin konprometituta egotea, batez ere, ahulenekin eta zaurgarrienekin.

Sektoreak edo erakundeak ez badu lotura hori zaintzen, beste hainbat alderdiren artean, hurbiltasuna galduko du eta honakoetako gaitasuna galduko du: erantzunak komunitate bakoitzeko ezaugarrietara eta beharretara egokitzea; beharrak antzeman, aurre hartu eta saihestea; gaitasunak piztu eta tokiko sareak ehuntzea; komunitatearen babes eta baliabide desberdinak dinamizatzea; parte hartze soziala tokiko mailan sustatzea edo tokiko eragileetan eta lurraldean lan egiten duten beste eragile batzuetan zuzenago eragitea.

Maiatzaren 26an udaletxeetan eta foru aldundietan –Euskadiren kasuan, gizarte-ongizatearen arloan kompetentzia zabalak dituzte- gure ordezkariak hautatzeko aukera dugu, eta SAREEN SAREA erakundeak, deialdi demokratiko hori aprobetxatu nahi dugu gure aldarrikapenak gizarteari eta hura ordezkatzeko prest daudenei modu eraldatzailean eta parte-hartzailean helarazteko.

SAREEN SAREAn pertsonen bizitza-kalitatea hobetzean oinarritutako tokiko eta foru-erakundeak aldeko apustua egiten dugu. Helburu nagusia gizarteratzearen eta kohesio sozialaren kuotak igotzea eta eskubideen berdintasun eraginkorra lortzea da, betiere, inor ez dadin ongizate maila egokietatik, babes sozial egokitik, eta giza izaerarekin eta herritar-izaerarekin osotasunean parte hartzetik baztertuta geratu.

Politika sozial desberdinen garapena beharrezko baliabideekin eta estrategia eta helburu argiekin bermatzen duten tokiko erakundeak behar ditugu.

Desberdintasunaren, txirotasunaren, lan-prekarietatearen eta larrialdi sozialaren igoerek pertsonak politiken erdigunean kokatzen eskatzen dute, herritar guztien ongizatea dimentsio guztietan bermatzera zuzendutako jarduerak lehenetsiz eta pertsona, familia eta gure gizartean eta herrialde txirotuetan talde sozial jakin batzuk ongizate maila egokietatik baztertuta gera ez daitezen saiatur.



**Sareen sarea**

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

Gure herrietako eta hirietako gobernuen inplikazio sendoa behar duten erronkak ditugu. Aldaketa demografikoak, Euskadiko herritarrak gero eta zaharragoak izateak eta Europako jaiotze-tasa baxuenak gure errealitate soziala aldatzen du. Gure hiriek diseinu irisgarria eta adiskidetsua behar dute, pertsona guztiei bizitza independentea eta autonomia eskainiko diena. Bide luzea egin behar dugu gizon eta emakumeen arteko guztizko berdintasuna lortzeko. Garapen-eredu iraunkorra bultzatu behar da, Nazio Batuen Agenda 2030ean ezarritakoarekin bat datorrena eta Eusko Jaurlaritzaren 2030erako Euskadi Basque Country Agendan txertatuta dagoena.

Erronka horiei guztiei heltzeak gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du, herriz herri eta lurraldez lurralde, eta ondorioz, gobernantza gisa antolatutako gizarte ekimenaren lankidetzeta, laguntza eta parte-hartze demokratikoa. Foru aldundietan eta udaletan ere elkarrizketa zibila estimulatzea, herritarrek eta gizarte-erakundeek eragiten dieten erabaki politikoetan eta ekonomikoetan esku har dezaten.

Ildo horretatik, datozen foru-hauteskundeetan eta udal-hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politikoak elkarrizketa egitera eta SAREEN SAREAK egindako 19 proposamenak aintzat hartzera bultzatzen ditugu.



## 2019 ko FORU HAUSTEKUNDE ETA UDAL HAUTESKUNDEETARAKO 19 PROPOSAMEN

### 1. Herri eta hiri inklusiboagoak

Udalek eta foru-aldundiek Inklusio Aktiboaren Planaren testuinguruan erdietsitako **inklusio-politiketako konpromisoak** modu eraginkorrean betetzea.

### 2. Garapen iraunkorrerako eta Agenda 2030erako politika koherenteak

Politiken koherentzia bultzatzea Gobernuko ekintzetan ingurumenarekiko modu iraunkorrean ikuspegi kausaletik txirotasunaren eta desberdintasunen kontrako borrokari ekiteko, Nazio Batuen Agenda 2030ean biltzen den moduan.

### 3. Zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala eta berdintasunean oinarritutakoa

Zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala eta berdintasunean oinarritutakoa modu eraginkorrean bermatzea, batez ere, pertsona ahulenen kasuan, bereizkeriarik gabe eta aukera-berdintasunean oinarrituta. Kalitatezko zerbitzuak eta arreta eskainitako herritarren behar eta ezaugarri pertsonaletara egokitutakoak eskatzea.

### 4. Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Sistema bultzatzea

Foru- eta udal-eskumenetan **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren** garapena bultzatzea, arreta berezia eskainiz, esku hartzeko eredu komunitarioa garatuz eta prebentzio-politikak bultzatuz.

### 5. Irisgarritasun unibertsalarekiko konpromisoa

Pertsona guztientzat arlo guztietan **irisgarritasun unibertsalaren eta diseinuaren** estrategia lortzeko konpromisoa (eremu publikoak, garraioa, eraikuntza, hezkuntza, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, IKTak eta abar), aplikazioa eta betetzearen ardurapean dauden gizarte-eragile guztiak inplikaturik, baita herritar guztiak ere.

### 6. Sareekin eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeekin Elkarrizketa Zibila zabaltzea

**Elkarrizketa Zibilari** ekitea (hala behar izanez gero) eta hura bultzatzea tokiko erakundeen eta foru-aldundien artean, jarduera dagozkien lurraldeetan duten Hirugarren Sektorre Sozialeko sare eta erakundeekin, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko 6/2016 Legearen arabera.



## **7. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategiak egitea**

Hirugarren Sektore Soziala **sustatzeko estrategiak** egitea, bere eskumeneko eremu geografikoekin lotuta, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren helburu orokorrekin bat etorriz.

## **8. Eremu soziosanitarioa garatzea**

Foru eta udal arlotik ere **eremu soziosanitarioa** garatzea. Osasun-sistemak eta zerbitzu sozialetako sistemak pertsonaren ezaugarriari eta beharrei zuzenduta eman, diseinatu eta prestatu behar dira, eta ez sistemen arteko bereizketaren murrizketaren arabera.

## **9. Enplegu duina lortzeko eskubidea**

Pertsona guztiek **enplegu** duina, inklusiboa eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea bermatzea, lan merkatuarentzat sarbide zailagoa duten horiei arreta berezia jarriz beren enplegarritasuna hobetzeko eta lanean eta gizartearen guztiz txertatzeko.

## **10. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa betetzea**

Eskumenen arlotik eskuragarri dauden baliabideak bideratzea **etxebizitza duina, egokia eta irisgarria** lortzeko eskubide subjektiboa gauzatzeko, Eusko Legebiltzarreko Etxebizitzaren 3/2015 Legearekin eta hortik datorren Etxebizitzaren Gida Planarekin bat etorriz.

## **11. Etxebizitzarik gabeko Pertsonentzako Euskadiko Estrategiara atxikitzea**

Oraindik egin ez duten Euskadiko udalerrri guztiek **Etxebizitzarik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiarekin bat egin** dezaten lortzea, prebentzioari, laguntzari eta inklusioari arreta eskaintzeko.

## **12. Zahartze aktiboko politiken aldeko apustua egitea**

Eskumenen arloan, bizitza-luzeraren estereotipo negatiboak albo batera utzi eta bizitza-itxaropen osasungarria eta autonomia zabalduko duten **zahartze aktiboko politikak** aplikatzea, Zahartze Aktiboko Euskal Estrategiarekin bat etorriz. **Udalerrriak Euskadi Lagunkoia ekimenera atxiki** daitezzen bultzatzea. Adineko pertsonen eta herritarren Euskadiko auzoak eta inguruak hobetzen parte-hartzea sustatzea du helburu.

## **13. Gurasotasun positiboa, erantzunkidetasuna eta kontziliazio familiarra sustatzea**

Gurasotasun positiboa, erantzunkidetasuna eta kontziliazio familiarra sustatzea. Foru-administrazio eta tokiko administrazio guztietan familia guztiei eragiten dien politiketan familiako errenta estandarizatzeari buruzko 154/2012 eta 32/2015 Dekretuak aplikatu daitezkeen sustatzea. Familiako errenta kide kopuruaren eta osakeraren arabera haztatzen du sistemak eta familiar babesteko laguntza edo zerbitzuetan aplikatzen da, hain zuzen ere sartzeko



baldintza familia-errentak baldintzatzen duenean.

#### **14. Genero berdintasunean aurrera egitea**

Foru aldundietatik eta udaletatik balio-aldaketa sustatzea Gobernuko ekintza guztietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko.

#### **15. Tokiko ekonomia inklusiboa eta iraunkorra sustatzea**

**Tokiko ekonomian** pertsonen ongizatearen irizpideak eta ingurumenarekiko errespetua lehenestea beste ohartarazpen ororen gainetik, eta klausula sozialen aplikazioa sustatzea kontratazio publikoko tresna gisa. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta irabazi-asmorik gabeko Hirugarren Sektorreko sektoreetan kokatutako jarduera ekonomikoen garapena sustatzea.

#### **16. Gizarte-ongizaterako baliabideak zabaltzea**

Herritarren gizarte-ongizatea bermatzen duten politiketara bideratutako **baliabideak zabaltzea**, batez ere desabantaila handieneko eta zaurgarritasun handieneko egoeran dauden pertsoneri eragiten dietenak. Politika horiek hobetzeko diru-sarrerak handitzea mailaz mailako fiskaltasunarekin eta iruzurra eta zerga-saihesteari aurre egingo dionarekin.

#### **17. Elkarbizitza eta aniztasunaren kudeaketa sustatzea**

**Aniztasuna kudeatzeko eta elkarbizitza sustatzeko** foru mailako eta tokiko politikak garatzea, gizarteratzearen eta inklusioaren alde egingo dutenak. Solidaritatean, erantzunkidetasunean, aniztasunean, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritutako kultura sustatzea, arrazakeria edo bereizkeria mota orori uko egingo diona.

#### **18. Nazioarteko lankidetzako konpromisoak betetzea**

**Nazioarteko lankidetzaren** politika onartzea politika publiko kontsolidatua, koordinatua eta egonkorra den heinean, GKEE-ekin partekatuta espezifikotasunetik eta balio erantsitik, aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeko konpromiso historikoa betez.

#### **19. Kontzertu Sozialaren Garapena**

Administrazio publikoek Hirugarren Sektorre Sozialarekin **konzertazio soziala** egiteko testuinguru juridiko berezia garatzen eta aitortzen laguntzea, erantzunkidetasun publikoko zerbitzuak hornitzeko, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko 6/2016 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.